Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

# GRADU AMAIERAKO LANA

## GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

## 2013/2014 ikasturtea

# IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOAREN IZAERA INKLUSIBOA

# Herritarren konpromiso eta beharretatik, jabekuntza prozesu publiko bezain sozialera

## -ERANSKINAK-

**Egilea: Endika Vallejo Elgueta**

**Zuzendaria: Monike Gezuraga Amundarain**

**Leioan, 2014ko Ekainaren 11an**

**© 2014, Endika Vallejo**

# AURKIBIDEA

1. Eranskina: IZSren aurrekari eta erreferenteei begirada bat……………………………. 3
2. Eranskina: IZSk hezkuntzan duen eragina…………………………………………….. 4
3. Eranskina: IZSk jarraitu beharreko faseak…………………………………………… 6
4. Eranskina: IZSren koadrantea eta honen trantsizioak…………………………………. 7
5. Eranskina: IZS eta gainontzeko egitasmoen arteko desberdintasunak………………... 9
6. Eranskina: Parte-hartzearen elementuak………………………………………………. 11
7. Eranskina: Eskaini daitezkeen zerbitzu motak eta esperientzia errealak……………… 12

## 1. Eranskina: IZSren aurrekari eta erreferenteei begirada bat[1]

### *AEB*

- 1860:Unibertsitateko hedapen proiektuak.
- John Dewey-ren pentsamoldea.
- 1960: eskubide zibilen mugimenduak..
- 1967. urtean, Sigmon eta Ramsey-ek lehenengoz *service lerning* terminoa erabili.

➢ *NYLC; AAHE; NSEE:CBK Associates.*

### *HEGO AMERIKA*

- 1910: Mexikon servicio estudiantil. 1945ean unibertsitatean derrigorra.
- 1975: Costa Rica-ko unibertsitatean graduatzeko derrigorra (Trabajo Comunal Universitario).
- 2005: Red Ibero-Americana de aprendizaje-servicio sortu.
- 2009: Argentinako DBHn derrigorra.

➢ *CLAYSS;FUNDACIÓN SES; CEBOFIL: UNISOL.*

### *EUROPA*

- 2004:Ikasketa zerbitzuaren Europako elkartea sortu (ESLA)
- 2010: Holandako gobernuak derrigozko praktikatzat jo.
    - ➢ *Lernen durch engagement, Movisie, Service Learning.Aprendre en s´engageant eta Comunity service volunteers.*

### *ESPAINIA*

- 2005-2007: Zerbikas fundazioa eta Centre promotor aprenentatje servei sortu.
- 200-2008: iniziatiba desbserdinen lehen jardunaldia eta sustapenerako ashokaren babesa.
- 2010 Españako ikasketa eta zerbitzuko sarea eta APS (U) sortu
- 2011-2012: IZSren metodologia hedatzeko eta Irakasleen formaziorako Dos Mares proiektua eta RED TEMATICA APS sortu.

---

[1] Irudi hau burutzeko erabilitako materiala jarraian agertzen dena da :

- Battle Suñer, R. (2013).Referentes internacionales. En R. Batlle Suñer. *El aprendizaje-servicio en España: el contagio de una revolución pedagógica necesaria* (pp.119-129). Madrid,Espainia:PPC
- Rodríguez, C.C.(2012).La Metodología Del Aprendizaje Servicio. *Kaleidoskopio 9*(18), 5-22. Disponible en http://kaleidoscopio.uneg.edu.ve/numeros/k18/k18_art01.pdf

Espainian dauden IZSren gaineko eragile garrantzitsuenez aparte, metodologia honek izandako eragina ezagutzeko, modu argi batean azaltzen den ondorengo diapositiba aztertzea gomendatzen da: http://es.slideshare.net/rbatlle/panorama-aps-espana-2013

## 2. Eranskina: IZSk hezkuntzan duen eragina.

| ***IKASKETA ETA ZEBITZUAK HEZKUNTZAN DUEN ISLA EDOTA ERAGINA*** | |
|---|---|
| ***Kognitibo eta akademikoa*** | • Araupetutako proben errendimenduan hobekuntza.<br>• Konpetentzien eta ezagutza kontzeptualen garapen handiagoa.<br>• Eskolarekiko errespetu eta motibazio gehiago. Klaseetako asistentzian nabarituko da.<br>• Nota hobeagoak egongo dira.<br>• Konplexua den informazioa ikertu eta sintetizatzeko gaitasun handiagoa. |
| ***Hiritarren prestakuntza*** | • Politikaren eta gobernuen eginkizunen gaineko ulermen handiagoa.<br>• Komunitatearen parte-hartze handiagoa izatea eragiteaz gain, gai publikoen interesa areagotzen du.<br>• Hiritarren erantzukizuna hobetzeaz gain, hiritartasuna lantzeko tresna da.<br>• Gai sozialen gaineko kontzientzia eta ulermena handiagoa izango da.<br>• Zerbitzu komunitarioekin konprometituak izatea eragin. |
| ***Bokaziozkoa eta profesionala*** | • Kontzientziaren eta bokaziozko aukeren handitzea.<br>• Konpetentzia profesionalak hobetzen ditu.<br>• Lanaren etikaren gaineko ulermen handiagoa.<br>• Lan mundurako prestakuntza hobeagoa. |
| ***Etiko eta morala*** | • Ikuspuntu eta ikuspegi berri gehiago jasotzeko aukera.<br>• Epaiketa etikoan egiterako orduan aldaketa positiboak nabaritzen dira.<br>• Gai moralen gaineko erabaki independenteak hartzeko abilezia gehiago. |
| ***Pertsonala*** | • Lidergotzarako gaitasun eta konpetentziak lantzen ditu.<br>• Autoestimua areagotu.<br>• Norberaren auto-ezagutza gehiago.<br>• Erresilentzia handiagoa.<br>• Efikazia pertsonal handiagoa. |
| ***Soziala*** | • Ikasleen artean adiskidetasun handiagoa. |

| | |
|---|---|
| | • Beste batzuekin edota taldean lan egiteko trebetasun gehiago.<br>• Aurreiritziak gainditzeko gaitasuna lantzen du.<br>• Jarrera prosozialak hobetzen ditu. |

***(*Egileak euskaratua)***

Puig Rovira, J., Gijón Casares, M., Martín García, X. y Rubio Serrano, L. (2011). Aprendizaje-servicio y Educación para la Ciudadanía. *Revista de Educación*, (nº extraordinario), 45-67. Disponible en http://www.revistaeducacion.mec.es/re2011/re2011.pdf

## 3. Eranskina: IZSk jarraitu beharreko faseak[2]

| *ETAPA* | *ALDIAK* |
|---|---|
| ***Hezitzailearen prestakuntza*** | • Taldea eta parte-hartzaile bakoitza nola dagoen aztertzea.<br>• Ingurune eta zerbitzuen aukeren gaineko beharrak detektatzea.<br>• Curriculum eta zerbitzuaren arteko harremana ezartzea.<br>• Ikasketa eta zerbitzuaren proiektua planifikatzea. |
| ***Taldearekin planifikazioa*** | • Taldea motibatzea.<br>• Ingurune edota arazoa ikertzea eta proiektua definitzea.<br>• Lana antolatzea.<br>• Planifikazioan zeharreko ikasketez hausnartzea. |
| ***Taldearekin betearazpena*** | • Zerbitzua gauzatzea.<br>• Solaskide edota jasotzaileekin harremantzea.<br>• Esperientzia erregistratu, komunikatu eta hedatzea.<br>• Zerbitzua betearazten den bitartean hausnartzea. |
| ***Taldearekin ebaluatzea*** | • Zerbitzuaren emaitzak baloratzea.<br>• Ikasketa prozesu osoaren inguruko hausnarketa.<br>• Etorkizunean burutu daitezken ekintzak proiektatzea.<br>• Amaitutako proiektuaren ospakizuna. |
| ***Hezitzailearen ebaluazioa*** | • Ikaskide bakoitza ebaluatzea.<br>• Inguruko erakundeekin egindako sare lana ebaluatzea.<br>• Burututako proiektua IZS gisa ebaluatzea.<br>• Hezitzaile gisa autoebaluatzea. |

***(*Egileak euskaratua)***

[2] Taula hau ondoren aipaturiko erreferentzia bibliografikoko 66. orrialdean dago eskuragai: Batlle, R & Bosch, C. (2006). Proyectos para mejorar la ciudadanía. *Cuadernos de pedagogía* (357) MAYO 2006, 64-68.Eskuragarri: http://www.documentacion.edex.es/docs/0401CALapr.pdf

Etapak modu desberdinean definitu edota antolatu arren, funtsean, guztiek gauza berdinei garrantzia ematen diete. Hala ere, osagarriak izan daitezkeela ulerturik etafaseak laburbiltzeko beste modu bat aztertzeko eta hauen gaineko informazio gehiago jasotzeko, jo:

Zerbikas erakundeko 1. gida praktikora: http://www.zerbikas.es/guias/eu/1.pdf eta ondoren aipaturiko dokumentuaren 23. orrialdera: Tapia, M.N., Hernán A., Montes, R.,Tapia, M.R. e Yaber, L. (2013) *Manual para docentes y estudiantes solidarios.* Buenos Aires, Argentina: CLAYSS . Disponible en http://www.clayss.org.ar/04_publicaciones/Natura2013.pdf

## 4. Eranskina: IZSren koadrantea eta honen trantsizioak.

Arinago aipatu, eta ondorengo orrialdean eskuragai dagoen irudian ikus daitekeen bezala, mota desberdinetako ekintzek IZSko metodologiako proiektu bat aurrera eramateko lehen urrats bat izan daitezke. Sinplifikatzearren, jarraian agertzen direnak, ohikoenak diren trantsizioak dira:

*a. Ikasketatik IZSra:*

- Eskolan ikasitako ezagutzek errealitatean aplikatu eta komunitatearen behar bati aurre egiteko zerbitzu bat eskaintzen denean ematen da.
- Ezagutzak beharren araberakoak izango dira. Hauek helburu solidario bat izateaz batera, testuingurua aberastea eragingo dute.

*b. Sistematik kanpoko ekimen solidarioetatik, ekimen solidario instituzionalizatuetara:*

- Trantsizio honek, zerbitzua instituzio edota eskolako kulturaren barruan sartzea suposatuko du. Modu honetan, pertsonen bizitza kalitatean eragin handiago bat izatea ahalbidetuz.
- Askotan agintariak sustaturiko politikak beharrezkoak izaten dira proiektu hauek egonkortzeko.

*c. Ekimen solidario instituzionalizatuetatik IZSra:*

- Apurka-apurka, hezkuntza edukiak sistematizatzen dihoazten ekintza solidarioak dira. Asmo hezitzaile formalak dituzte.
- IZS bilakatzeko: ikasketa kurrikularrak artikulatu behar dituzte, denboran zehar iraun, helburuak finkatu, proiektuko ekintzak sistematizatu, lorpenak ebaluatu eta onuradunak protagonistak kontsideratu.


3. EKIMEN SOLIDARIO INSTITUZONALIZATUAK
Zerbitzu asko eta ikasketa gutxi.
Ekintza planifikatuak eta instituzionalizatuak.
Boluntariotza: Zerbitzuak du garrantzia.
Adibideak: Odola emateko kanpaina solidario batean parte hartzea, beti ere ekintza hau zentroan egonkortuta edo kulturaren “barruan” badago.
4. IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOA
Zerbitzu eta ikasketa asko.
Komunitatearen beharrak eta elkarlana.
Hezkuntza kurrikulumarekin batera.
Adibidez: Biologiako irakasgaiko ikasleak, kutsatuta dagoen ibai bateko ura ikertzea eta horren inguruko informazioa herritarrei helaraztea.
IKASKETA
INTEGRATUA
ZERBITZUA
2. SISTEMATIK KANPOKO EKIMEN SOLIDARIOAK
Zerbitzu eta ikasketa gutxi.
Asistentzialismoa nagusitu.
Ekintza puntualak, intentsitate baxukoak eta hezkuntza formalean integratu gabeak.
Adibidez: Jantoki sozial baterako janaria biltzea.
1. PRAKTIKA ETA LANDA LANAK
Ikasketa asko eta zerbitzu gutxi.
Ikasketa zehatzetan oinarritutako proiektuak.
Errealitatea da ikasketa objektua.
Ikasketa kurrikularra.
Adibidez: Ikerketak edota edozein motatako landa lana.

## 5. Eranskina: IZS eta gainontzeko egitasmoen arteko desberdintasunak

***CYBERMANAGERS***

IZSk beste motatako ekintzekin dituen desberdintasunez jabetzeko, mota honetako ekintza batek izan behar dituen ezaugarri edota osagai nagusiak alderatzea ezinbestekoa dela ulertzen da. Horretarako, jarraian, Portugaleteko ikastetxe batean burutu zen ekintza bat azaltzearekin batera, honen ezaugarriak aztertu eta ondoren nahasmena sor ditzaketen beste ekintza mota batzuekin parekatuko dira. Ekintza hauek antzekoak izan arren, bereizgarri egingo dieten ñabardura batzuk izango dituzte. Beste ekintza moten ezaugarrien azterketa hurrengo orrialdean dago eskuragai.

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko ekintza honetan, teknologia berrien erabilpen ziurra eta onuragarria sustatzeko helburua duen “Pantallas amigas” deituriko iniziatiba eta Santa Maria ikastetxeko (Portugalete, Bizkaia) 15 urteko ikasle zein irakasleek hartu zuten parte. “Pantallas amigas” eta ikastetxearen arteko elkarlanaren bitartez, ikasleei interneteko erabilera ziurraren gaineko formazioa eskaini ostean, hauek 10 urteko gazteei interneten dauden arriskuen gaineko informazioa helarazi zieten. Modu honetan, arriskuen gaineko informazioa eskainiz, prebentziozko lan bat egin zuten. Hau da, saio desberdinetan “akonpainamendu digital” gisa ezagutzen den zerbitzuak eskaintzen zituzten. Kasu honetan, 15 urteko ikasleek bereganatzen zihoazen ezagutzak, klasean ikasitakoarekin lotura zeukaten. Lerro kurrikulararekin harreman hau izatea oinarrizkoa da. IZSko metodologia batek izan behar dituen elementuak kontuan hartuz, hauek dira ekintza honek eskaintzen dituenak:

- *Ikasketa.* Batzuk zerrendatzearren: Interneten erabilera aproposa eta bertan aurki daitezken arriskuak, jende aurrean azalpenak emateko gaitasuna, errespetua, elkarlana eta elkartasuna bezala baloreak lantzen dira.
- *Zerbitzua.* Akonpainamendu digitala izango litzateke.
- *Proiektua.* Ondo egituratutako proiektua da, eragile desberdinekin elkarlan batean oinarritzen dena.
- *Parte-hartze aktiboa*. Ikasleak, herritar aktibo gisa, jendartea eraldatzeko aktibo bilakatzen dira.
- *Hausnarketa*. Prozesuan zeharreko hausnarketa etengabea bultzatzen da.

| | |
|---|---|
| ***SISTEMATIK KANPOKO EKIMEN SOLIDARIOAK*** | |
| ***Azalpena*** | Ikasle batzuek duten ezagutza mailaren arabera, "Pantallas amigas"-ek burutzen dituen difusioetako ekintzetan laguntzea. Adibidez, plataforma honek eskaintzen duen informazioa biltzea eta egun batean eskolako atean informazioa helaraztea. |
| ***Ezaugarriak*** | • *Ikasketa.* Ez dago ikasteko helbururik, helburu nagusia, difusioan laguntzea baita.<br>• *Zerbitzua.* Ingurukoei interneten dauden arriskuen inguruko informazioa helaraztea.<br>• *Proiektua.* Ekintza puntual bat da, ez dago proiekturik.<br>• *Parte-hartze aktiboa.* Ez da parte-hartzea bultzatzeko helburuarekin burutuko.<br>• *Hausnarketa.* Prozesuan zehar egiten den hausnarketa indibiduala da, baina ekintza berak ez du hausnarketa helburutzat. Helburua zerbitzua eskaintzea da. |
| ***EKIMEN SOLIDARIO INSTITUZIONALIZATUAK*** | |
| ***Azalpena*** | Kasu honetan Santa Maria ikastetxeak zentro gisa, internetek dituen arriskuez abisatzeko kontzientziazio kanpaina batean parte hartzea edota antolatzea izango litzateke. Adibidez: Maiatzak 17ko astean (Interneteko egun internazionalean), erakunde ezberdinekin batera, ikasleak interneten inguruko erabilera egokia bultzatzen duten ekintza desberdinak antolatzea. |
| ***Ezaugarriak*** | • *Ikasketa.* Esperientzi honen bitartez bereganaturiko ikasketak ez daude ezagutza kurrikularrarekin lotuta.<br>• *Zerbitzua.* Interneten erabilera egokiaz informazioa eskaintzea eta kontzientziatzea (Asteko ekintzak).<br>• *Proiektua.* Ikastetxearen identitatearekin bat egingo du eta honek jarraikortasun bat duela suposatu.<br>• *Parte-hartze aktiboa.* Eskaintzen den zerbitzuan zentratzen da eta parte-hartzea eskolara mugatzen du<br>• *Hausnarketa.* Ekintzan edota eskaintzen den zerbitzuan zentratzen dira, ez dago hausnarketara bideratuta. |
| ***PRAKTIKA EDOTA LANDA LANAK*** | |
| ***Azalpena*** | Informatikako irakagasgaiko ikasleak, "Pantallas amigasek" sare sozialen inguruan antolatzen dituen jardunaldi batzuetara joatea. |
| ***Ezaugarriak*** | • *Ikasketa.* Klasean ikasitakoarekin lotura dauka. Ezagutza edota ikasketa maila altua.<br>• *Zerbitzua.* Ez da zerbitzurik eskaintzen.<br>• *Proiektua.* Ez dago proiekturik, ekintza puntual bat da.<br>• *Parte-hartze aktiboa.* Ez dago gizartean parte-hartze aktiborik.<br>• *Hausnarketa.* Ekintza hutsean geratzen da, ez dira hausnartzeko espazioak eskaintzen. |

# 6.Eranskina: Parte-hartzearen elementuak.

Gonzalez (2012:45). (***Egileak euskaratua)**



# 7. Eranskina: Eskaini daitezkeen zerbitzu motak eta esperientzia errealak.

| | |
|---|---|
| ***Aniztasun funtzionala***<br>• Gai honen inguruko difusio kanpainak.<br>• Aniztasun funtzionala dutenei akonpainamendu zerbitzu bat eskaintzea (adibidez: medikuarengana joateko arazoa duten pertsonei laguntzea).<br>• Bizi duten aniztasun funtzionala dela eta laguntzaren bat behar dutenei zerbitzu hori eskaintzea (Adibidez: etxeko gauzak egiten laguntzea). | a. *Renten i planxem roba solidaria".*<br>• http://www.youtube.com/watch?v=7Bt2UUT5scg&feature=player_embedded#!<br>• http://www.zerbikas.es/es/noticia.asp?id=5490<br>a. *Conocer es amar.*<br>• http://vimeo.com/70405556<br>• http://www.slideshare.net/rbatlle/aprendizajeservicio-exito-educativo-y-compromiso-social<br>b. *"Los/las nuevos voluntarios".* http://www.youtube.com/watch?v=G_o8mIMh6Bk |
| ***Kultuartekotasuna***<br>• Beste kulturen gaineko difusio kanpainak.<br>• Kultura ezberdinetako pertsonak harremantzeko tarteak eskaintzea.<br>• Atzerritarrentzako, berria den herrialdearen inguruko informazio edota aholkularitza zerbitzu bat eskaintzea. | a. *"Juveneando".*<br>• Ondorengo link honetako 20. orrialdea: http://www.uam.es/otroscentros/imedes/docs/Guia_Basica_Aprendizaje-Servicio-ICI-Leganes.pdf<br>b. *"Café y palabras".*<br>• Ondorengo link-ean agertzen den gidako 62.Orrialdea: http://www.zerbikas.es/guias/es/60.pdf |
| ***Harreman intergenerazionalak***<br>• Estimulazio fisiko eta mentala lantzeko proiektuen garatzea eta planifikazioa (jolasak, dantzak, eskulanak..)<br>• Beste batzuei nagusiekin egiten diren lan, aurkezpen, foileto web orrialde eta kanpainen berri ematea<br>• Ordenagailu bat erabiltzen irakastea.<br>• Ahozko istorioak.<br>• Berreskurapen historikoa. | a. *"Em llegeixes un llibre".*<br>• http://aprenentatgeserveifontsere.blogspot.com.es/2008/11/em-llegeixes-un-llibre-una-experincia.html<br>b. *"Conecta joven":*<br>• http://www.conectajoven.org/index.htm<br>c. *"La Tardor. Un projecte intergeneracional"*<br>• http://www.quadernsdigitals.net/index.php?accionMenu=hemeroteca.VisualizaArticuloIU.visualiza&articulo_id=11145 |